2026ko USEko GREKOko ariketak irizpide hauei jarraituz kalifikatuko dira:

A Multzoa: Grekozko testuen hizkuntza-ezaugarriak identifikatzea eta azaltzea. Itzulpena eta lotutako galderak.

1. Grekozko testua gaztelaniara edo euskarara (hiztegiaz lagunduta) itzultzeari 0 puntutik 5era bitarteko kalifikazioa emango zaio. Honako hauek balioetsiko dira: testuaren esanahia ulertzea, testuaren gramatika-egiturak ulertzea, gaztelaniaz edo euskaraz zuzen adieraztea eta, ahal den neurrian, itzulpenean egitura horiei eustea.
2. Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta analisian eta itzulpenean akats bera errepikatuz gero behin bakarrik hartuko da kontuan kalifikazioa jaisteko. Analisi sintaktikoa emandako itzulpenarekin bat datorren baloratuko da.
3. Aditz-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5 puntura bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik (pertsona, numeroa, denbora, modua eta boza adieraziz; partizipioa izanez gero, kasua, generoa eta numeroa ere adieraziz) eta 0,25eraino proposatutako formak jokatzeagatik.
4. Izen-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5 puntura bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik (generoa, numeroa, kasua eta funtzioa adieraziz aztertutako testuaren testuinguru zehatzean) eta 0,25eraino eskatzen den deklinabidea idazteagatik.
5. Lexikoari buruzko galderari ere 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio. Zehazki, gehienez 0,5 galderaren bi ataletako bakoitzeko. Lehenengo atalean, 0,2raino proposatutako hitzaren etimologia eta esanahia adierazteagatik, eta 0,3raino hitz horrekin erlazioa duten gaztelaniazko edo euskarazko hitzak (hiru, gutxienez) zehazteagatik. Bigarren atalean, 0,5eraino planteatutako terminoaren jatorri etimologikoa identifikatu eta behar bezala azaltzeagatik.

B Multzoa: Grekoaren ondare lexiko eta kulturala gure hizkuntzetan identifikatzea eta garatzea.

6. Greziari eta haren ondareari (greziar literatura) buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino literatura-generoaren oinarri nagusiak azaltzeagatik, eta 0,5eraino proposatzen den egile edo lanari buruz idazteagatik.
7. Irakurtzeko proposatzen diren obrei buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; puntuazioak islatuko du pasartea bere testuinguruan identifikatzea, obrak benetan irakurri izana eta obren ulermena.
8. Ortografia akatsengatik gehienez ere azken notaren % 10 kendu ahal izango da. Lehenengo ortografia akatsa ez da kontuan hartuko, baina hortik aurrerakoetan 0,1 puntu kenduko dira. Ez da punturik kenduko grekoko testuan espirituak eta azentuak ez jartzeagatik. Ez da punturik emango azterketa ondo idatzita egoteagatik.